

2016/17 ikasturtean ikasketa ez-unibertsitarioren batean 420.264 ikasle aritu ziren Euskal AEn

54 milioi banatu ziren diru-laguntzetan, 126.644 ikaslerentzat

2016/17 ikasturtean ikasketa ez-unibertsitarioren batean 420.264 ikasle aritu ziren, aurrekoan baino %0,3 gehiago, Eustaten datuen arabera.

%92 Araubide Orokorrekoetan (%+0,5); %8 Berezikoetan (%-2,3). Matrikula kopurua behera hiru ikasturtez jarraian.

Araubide Orokorrekoetan ikasleen erdiak Bizkaian aritu ziren; %33 Gipuzkoan; %16 Araban. Arte Plastikoen matrikulen %63 Araban; Arte Dramatikoa Bizkaian bakarrik dugu. Dantza, bai oinarrizkoa, bai profesionala, Araban; eta goi mailakoak Bizkaian. Kiroletakoak Bizkaian %92tan. Araubide Berezikoen lurraldekako espezializazio hau matrikula kopuru txikiari zor zaio. Salbuespenak Musika eta Hizkuntzak dira.

1. taula.- Euskal AEko unibertsitatez kanpoko ikasleak, irakaskuntza mailaren arabera, lurraldeari jarraiki. 2016-17 ikasturtea

	Guztira	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa	Aurreko ikasturtearekiko aldakuntza (%)
GUZTIRA	420.264	66.930	212.611	140.723	0,3
Araubide orokorreko irakaskuntzak	387.545	61.672	193.828	132.045	0,5
Haur-hezkuntza	91.103	14.929	45.366	30.808	-2,4
Lehen hezkuntza	129.521	20.157	64.864	44.500	1,0
Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH)	81.389	12.295	40.915	28.179	2,5
Batxilergoa	30.231	4.299	15.336	10.596	0,6
Erdimailako lanbide-heziketa	14.439	2.955	6.844	4.640	3,2
Goimailako lanbide-heziketa	21.012	3.724	9.712	7.576	6,5
Hezkuntza berezia	1.375	263	688	424	5,1
Oinarrizko lanbide heziketa	4.385	599	2.626	1.160	7,4
Helduen hezkuntza (HH)	14.090	2.451	7.477	4.162	-9,0
Araubide Bereziko irakaskuntzak	32.719	5.258	18.783	8.678	-2,3
Hizkuntzen irakaskuntzak	28.579	4.359	16.501	7.719	-3,0
Musika irakaskuntzak	2.715	488	1.422	805	-1,2
Kirol irakaskuntzak	773	0	710	63	12,7
Arte Plastiko eta Diseinu irakaskuntzak	512	321	100	91	3,2
Dantza irakaskuntzak	110	90	20	0	2,8
Arte Dramatikoa irakaskuntzak	30	0	30	0	1,0

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Orokorrekoetan, antzeko ikasle kopurua zentro publiko eta pribatuetan, bi salbuespenekin: Lan Hezkuntzan 10etik 6 publikoetan; Helduen Hezkuntzan ia denak publikoetan. Oinarrizko Lanbide Heziketan, %72 zentro pribatuetan. Berezikoetan, ikasle gehien publikoetan: Hizkuntzetan, Dantzan eta Arte Dramatikoetan %100; gainerakoetan %70 pasa.

Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikula gehiago (%7,4)

Aurreko ikasturtearen aldean Araubide Orokorrekoetan 2.021 matrikula gehiago. Oinarrizko Lanbide Heziketan %+7,4; Goi Mailakoan (%+6,5). Haur Hezkuntzan %-2,4, beheraka laugarren urtez jarraian; Helduen Hezkuntzan %-9.

Araubide Berezikoetan 785 matrikula gutxiago (%-2,3). Musika eta Hizkuntzak eraginda.

Batxilergoan neskak eta mutilak antzeko kopuruetan. Mutil gehiago Maila Ertaineko Lanbide Heziketan

Derrigorrezko hezkuntza amaiturik, ikasleen %68k batxilergora jotzen dute; %32k maila ertaineko modulu profesionaletara.

Batxilergoan neskak eta mutilak antzeko kopuruetan. Maila Ertaineko Lanbide Heziketan hiru ikasletik bi, mutilak.


Neska gehiago Arte eta Giza Zientzietako Batxilergoan

Batxilergoko modalitateetan, neska gehiago guztietan Zientzietan (%48) izan ezik. Arte eta Giza Zientzietako Batxilergoan hiru ikasletik bi, neskak.

Maila Ertaineko Lanbide Heziketan, eskainitako hogeit hamar "familietako" bostetan dira neskak gehiengoa: Irudi Pertsonala (%94); Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatearentzakoak (%77); Osasungintza (%75); Elikadura industria (%62); Administrazioa eta Kudeaketa (%60). Merkataritza-marketinean, eta Kimikan neskak eta mutilak antzeko proportzioetan. Gainerako familietan mutil gehiago, dezenteko aldeaz.

Goi Mailako Lanbide Heziketan 21.012 ikasle, aurreko ikasturtearen aldean %+6,5; %35 neskak, erdiek 24 urte edo gehiago.

Neskek gehiago jotzen dute irudiaren mundura, pertsonen zaintzara, elikadurara, ehungintzara eta jantzigintzara.

Grafikoa.- Batxilergoko eta Maila Ertaineko Lanbide Heziketako ikasleak, modalitate edo familien eta sexuaren arabera (%). 2016/17 ikasturtea


Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Tolosaldean bakarrik ikasle guztiak D ereduan

2016-2017koan, Araubide Orokorrekoetan, ikasleen %66 D ereduan; %18 Bn ; %15 An.

Banaketa ez da homoginoa; hezkuntza mailaren eta zentroaren kokalekuaren arabera dago. Haur Hezkuntzan, Gipuzkoan eta Bizkaian, D eredia zeharo orokortua dago, Bilbo handian (%64) izan ezik. Arabako eskualde guztietan %80tik behera dago, Gorbeia Inguruetan (%95) izan ezik.

Lehen Hezkuntzan eta DBHn eskualde guztiak %70en gainetik Gipuzkoan eta Bizkaian; Bilbo Handia (%56) salbuespena. Araban D matrikulak %52,4; %79 Gorbeia Inguruetan eta %76 Arabako Mendialdean.

Hezkuntzaren goiko mailetan, A nagusi (%100 Gorbeia Inguruetan). Hiriburu eta biztanle eta ikasle kontzentrazio handienetan D eredu gutxiago. Donostian %43; Bilbo Handian %26; Arabako Lautadan %24.

Beken diru-kopuruaren %47 Lehen Hezkuntzara

Euskal AEko Administrazioak 54 milioi eman zituen diru-laguntzetan 2016-2017koan, 126.644 ikaslerentzat, guztien %31rentzat.

Araubide Orokorrekoetara beken %99,8. %47 Lehen hezkuntzara; %22 Haur Hezkuntzara; %19 DBHra. Irakaskuntza Espezializatueta 130.000€ inguru.

Zentro publikoek laguntzen bi heren jaso, hezkuntza goiztiarra eta oinarrizkoa kuttun direlarik. Zentro pribatueta ikasleek 19 milioi jaso.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estadistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62